

Gobernu Batzordearen erabakiak, prestazioen erregelamendua aldatzen dutenak

Hilkortasun-etaulak

2019ko abenduaren 20an, Gobernu Batzordeak, gehiengoz, erakundearen iraunkortasunaren ebaluazio iraunkorraren konpromisoan eta etorkizuneko konpromisoetan oinarrituta, pentsioen kalkuluan hilkortasun taula berriak aplikatzea erabaki zuen, AZNk egin eta argitaratu dituelarik. Horregatik, Prestazioen Erregelamenduko 12. artikulua aldatu egin da, eta 2020ko urtarrilaren 10ean sartu da indarrean. Ondorioz, urtarrilaren 10etik aurrera eskatutako prestazio guztiak hilkortasun-etaula berria gehituz kalkulatu dira.

Diseinu tekniko berria/Hamar urteko prospektiba

Aurten, AON HEWITTen bidez azterlan bat egin da, datozen hamar urteetarako aktiboaren eta betebeharren eboluzioa zehazteko.

Azterlan horri esker, hobetu beharreko alderdiak detektatu eta erabakiak hartu ahal izan ditugu, arriskuak gutxitzen laguntzeko helburuarekin eta Elkarkidetzaren iraunkortasuna indartzeko.

Ondorioen artean azpimarratzekoa da:

- Agerikoa da merkatuko interes-tasek beherakada handia izan dutela azken urteotan.
- Elkarkidetzaren hamar urterako espero den errentagarritasunak behera egin du hilabete gutxian, 2017an AONen txostenean espero zen % 3,6tik % 2,52ra (hori da egindako azterlan guztien itxaropenik baikorrena, gure Inbertsio Sailak egindako azterlana barne).
- Interes-tasen egiturazko aldaketa baten aurrean gaude, eta, zehatzago, espero den errentagarritasunari dagokion interes-tasaren eta prestazioak kalkulatzeko interes-tasaren arteko erlazioan.
- 2000-2010 hamarkadan, 10 urterako bonu espainiarraren tasak % 3,5 eta % 5,5 artean mugitzen ziren, eta batez beste % 4,4 inguruan (gure prestazioak kalkulatzeko erabilitako tasa baino handiagoa) 2015-2018 urteen artean, bazirudien tasak % 1 eta % 2 arteko banda berri batean finkatu zirela, % 1,5 inguruko batez bestekoarekin. Gaur ere banda hori are posizio baxuagotan jartzen ari da: gaur egun Europako herrialdeetako bonuen tasak negatiboan daude, edo aurreikuspen murriztagoekin (Espainia % 0,20an). Euroguneko gobernuaren bonu bakar batekin ere ez dugu gure pasiboen egungo kostua estaltzen (ezta 30 urtera ere).
- Historikoki, gure interes-tasa tekniko 10 urterako bonuaren tasaren azpitik zegoen. Batez beste, tasa horren % 80 eta % 90 artekoa zen. Azken urteetan modu dramatikoan hautsi da harreman hori.
- Elkarkidetzak, lehentasunez, errenta gisako prestazioak ordaintzea erabaki du, lortutako batez besteko errentagarritasunek eta etorkizunean espero zirenak jasaten zituzten tasa batzuekin, eta denboran eraikitako kaudimenarekin, merkatuko shockak (urteko errentagarritasun negatiboengatik) jasatea edo hilkortasun-etaulak egokitzea ahalbidetzen zuena. Egoera guztiz aldatu da.
- Esanguratsua da, gainera, biziarteko errentak eskaintzen dituzten aseguru-erakundeek batez beste % 0,25 - % 0,4 kotizatzen dutela egiaztatzea. Aseguruen Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko ekitaldian,

gertakari horiei dagokienez pentsio-planetarako erabil daitekeen gehieneko interes-tasa % 0,39 izango dela ezarri du.

- Iraunkortasuna ziurtatzeko moduan birdoitzea ahalbidetu dezakeen mekanismo bakarra prestazioak kalkulatzeko interes-tasaren aldaketa da.
- Mozkinetan parte hartzeko mekanismoa berriro diseinatu behar dugu.

Erakundearen azterketa eta iraunkortasuna etengabe ebaluatzeko konpromisoa eta etorkizuneko konpromisoak oinarri hartuta, 2020ko apirilaren 1eko Gobernu Batzordeak, aho batez, eta instituzioetako eta sindikatuetao ordezkari guztien babesarekin, bazkideen ordezkariak, erabaki zuen:

1. Pentsioa kalkulatzeko interes-tasa teknikoa: % 0,50

- 2. Mozkinetako partaidetza:** Pentsioaren kalkuluan erabilitako interes teknikoa itxarondako etorkizuneko errentagarritasuna (% 2,5) baino txikiagoa dutenentzat izan behar du, eta progresiboa izan behar du, betiere espero den etorkizuneko errentagarritasunaren eta pentsioa kalkulatzeko erabilitako interes teknikoaren arteko aldea bada.

Horregatik guztiagatik, mozkinetako partaidetzak honako arau hauek beteko ditu:

- ✓ Mugak:
 - % 0,50era kalkulaturako errentetarako muga: Gutxienekoa ($\% 70 * (\text{errentagarritasuna} - \text{errenta kalkulatzean erabilitako interes teknikoa} * 1,25)$); % 2,00)
 - % 1,75era kalkulaturako errentetarako muga: Gutxienekoa ($\% 70 * (\text{errentagarritasuna} - \text{errenta kalkulatzean erabilitako interes teknikoa} * 1,25)$); % 0,75)
 - % 2,25era kalkulaturako errentetarako muga: Gutxienekoa ($\% 70 * (\text{errentagarritasuna} - \text{errenta kalkulatzean erabilitako interes teknikoa} * 1,25)$); % 0,25)

 - % 3,5era edo % 4ra kalkulaturako errentek ez dute mozkinetako partaidetzarik. Batzar Nagusiak berariazko akordio bidez errebalorizatu ahal izango ditu errenta horiek.

3. Prestazioen Erregelamendua 2020ko apirilaren 10ean sartuko da indarrean.